

Ustez prefeta hiltzeagatik epaituko dituzte datorren urtean, beste bost akusaturekin batera

«Borrokarako dinamika bat» sortzera deitu dute 'Erignac auziko' hiru presok

Korsikako «abertzaleak gogoetatzeko eta elkartzeko eremu bat eratzea» lehenetsi dute

Allande Sokarros |

Paris eta inguruko espetxeetan giltzapetuta dauden hiru korsikar preso politikok bidalitako eskutitz ireki baten pasarteak eman zituen argitara *Corse Matin* egunkariak maiatzaren 10eko edizioan. 1998ko otsailaren 6an Aiacciu tirokatua izan zen Claude Erignac Korsikako prefetaren hilketagatik auzipetuak diren Pierre Alessandri, Alain Ferrandi eta Joseph Versini korsikar abertzaleek dei egin zuten «mugimendu nazionalaren osagai guztiak bil ditza-keen gogoetarako eta elkartzeko eremu bat osatzera».

Gutun hartan, haatik, Korsikako abertzaleez gain, «uharteko bizi indarrak» egitura bateratzaile batean elkarretartzea premiazkotzat jotzen zuten hiru preso politikoei, «borrokarako dinamika bat bultzatzeko xedez». Ezen, Alessandri, Ferrandi eta Versiniren iritzian, «gaur egun egoera blokeatu batean da Korsika».

Mugimendu abertzalearen berrindartzea edo berrosatzea eta egoera blokeatu bati aurre egitea; asmo horiek izan ziren, hain zuzen ere, Erignac prefeta-



GEORGES GOBET / EPA

Claude Erignac Korsikako prefeta 1998an hil zuten. Irudian, haren hilkuta Aiacciu prefeturatik ateratzen, Frantziako banderarekin.

ren hiltzearekin Izenik Gabeko Taldea deitua izan zenak lortu nahi zituen helburuak. Talde honetako kide eta Erignacen ustezko hiltzailetzat eman dituztenak 1999ko maiatzaren 21 eta 22an atxilotu zituzten, Aia-cciu eta Sarte inguruetan.

Ia hiru urte iraun duen justizia ikerketa baten amaieran, Jean-Louis Brugiere, Laurence Le Vert eta Gilbert Thiel

terrorismo auzietako epaileek zortzi lagun auzitegi kriminal berezian epaitzeko agindua sinatu zuten joan den maiatzaren 7an.

Zortzi auzipetu, hiltzeagatik edo hilketan laguntzeagatik

Erignac prefetaren «hilketako parte-hartzaile» gisa epaituko dituzte Pierre Alessandri, Alain Ferrandi, Marcel Istria, Didier

ZUZENKETA

Mathieu Filidoriren auzi ikerketa artxibatzea ebatzi du Justiziak, epaileek aitortu baitute oker jo zutela susmagarritzat

Maranelli eta Martin Ottaviani. Korsikako prefeta hil zuen komandokoak izatea leporatua zaie bost lagun haiei. Vincent Andreuzzi, Jean Castela eta Joseph Versini, aldiz, «hilketan laguntzaile» izateagatik epaituko dituzte, lehen biak ekintza honen asmatzaileak eta errebindikazioaren egileak izateaz dira susmagarri eta hirugarrena, aldiz, atentatuaren asmoaz jakinean egoteaz. Guztiek bizi osorako espetxe zigorra arriskutzen dute.

Azkenik, Mathieu Filidoriren auzi ikerketa artxibatzea ebatzi dute ikerketa epaileek. Abertzale burukide ohi hori ere atxilotu zuten 1999an, baina magistratuek aitortu dute Erignacen hilketaren asmatzaile izateaz oker egin zutela susmagarri.

ASTEKO KRONIKA

MAIATZAK 11, LARUNBATA

KORSIKA. Garraio enpresa publiko baten aurkako lehergai-lu bidezko atentatua izan zen Bastia hegoaldean. Inork ez zuen bere gain hartu.

MAIATZAK 12, IGANDEA

FLANDES. Herbehereetako politikari Pim Fortuynen hilketak zeresan handia eman zuen iritzi publikoan. Vlaams Blok eskuin muturreko alderdia jazoeraz profitatzen saiatu zela salatu zuten hedabideek, eta jokaera aldatu behar zuela nabarmendu.

MAIATZAK 13, ASTELEHENA

ESKOZIA. Azken meategi sakonaren itxiera herritarrei milioika libra kostako zaizkiela eman zuten aditzera. Meategia ustiatzen zuen enpresak porrot egin zuen martxoan, uholdeen ondorioz, eta Gobernuak lagundutako elkarte batek kitatu zuen zorra. Westminsterri zegokiola esan zuen SNP alderdiak.

MAIATZAK 14, ASTEARTEA

GALES. Ceredigioneko zinegotzi Dai Lloyd Evansi dimisioa emateko eskatu zioten, jakin baita milaka libra eskura ditzakeela bere agindupean egindako etxegintza plan baten bidez bere eskuko lurrak salduz.

MAIATZAK 15, ASTEAZKENA

HERRIALDE KATALANAK. Martxoan Europako Batasunak Bartzelonan egindako goi bilaren aurka protestan zebiltzanak Poliziak atxilotzea eragozten saiatu ziren bi herritarri sei hilabeteko espetxe zigorra eta 36 euroko kalteordaina ezarri zieten.

MAIATZAK 16, OSTEGUNA

LAPONIA. Finlandiako laponiarren Legebiltzarreko presidente ohi Ole Henrik Magga aukeratu zuten NBE Nazio Batuen Erakundean sortu berri den Indigenentzako Forum Iraunkorreko buruzagi. 900 talde indigenak baino gehiagok eskatu dute parte hartzeko aukera.

MAIATZAK 17, OSTIRALA

GALIZIA. Galizieraz ikasteko oinarriko eskubidearen alde leloarekin, manifestazioa egin zuten ehunka lagunak, Hizkuntz Normalizaziorako Mahaiak deituta, Santiagon, Galizierazko Letren Egunean.

STELLA CASTELA ZAPALKUNTZAREN KONTRAKO BATZORDEKO ELEDUNA

«Presoen etorkizunerako ere, hurrengo bozen emaitzak erabakigarriak izango dira»

A.S. |

Erignac prefetaren hilketan laguntzaile izateagatik epaituko duten Jean Castela preso politikoen emaztea da Stella Castela. Zapalkuntzaren Kontrako Batzordeko bozeramailea da. Berarekin hitz egiteko aukera izan du EGUNKARIAK.

■ **Zure senar Jean Castela epaituko dute Erignac prefetaren hilketako auzian. Alta, dossier honetan aske jartzeko ebazpena hartu du Justiziak. Nola azal daiteke kontraesan hori?**

Argi da kontraesan bat bada-goela. Izan ere, 2001eko azaroan, Parisko Dei Auzitegiko akusazio ganberak ebatzi zuen nire senarra eta Vincent

Andreuzzi aske jartzea Erignac prefetaren hilketako sumarioan, euren aurka ezer baino gutxiago baitzen dossierrean. Alabaina, ikerketa magistratuek eta Fiskaltzak dute erabakitzen epaitua izan behar duzun ala ez, eta hala ebatzi dute Jean eta Vincenten kasuan. Haatik, gure abokatuak erabaki dute auzian agertu behar honen kontra helegitea jartzea.

■ **Datorren urtean epaitu ditzaketen zortzi lagun artean bostek aitortu zuten Erignac prefetaren hilketan parte hartu zutela, eta hiruk, aldiz, ukatu zuten. Honek arazorik sortzen al du defentsa kontuetan?**

Ez, honek ez du inolako arazorik sortzen. Ezen Zapalkun-

tzaren Kontrako Batzordeak denak sustatzen ditu, eta abokatuak dituzte, aldiz, defentsa moldeak aukeratzen eta aurrera eramaten, auzipetutakoekin egin zituzten adierazpenen arabera. Akusazioak ukatzen dituzten nire senarraren eta Vincent Andreuzziren kasuetan defendatzaile gisa Eric Dupont-Moretti eta Vincent Stagnara abokatuak jardungo dute.

■ **Militante politikoen epaiketak auzitegi berezien esku izatea onurazkotzat ala kaltegarritzat jotzen duzue Korsikan?**

Ez dugu gai hori sakonki aztertu zapalkuntzaren Kontrako Batzordean, baina niri iruditzen zait *hobe* dela auzitegi bereziak izan daitezen. Ezen

esan daiteke honek duela estatutu frantziarraren aldetik nola edo hala agerian uzten izatera politikoa duten auziak direla.

■ **Frantziako gaur egungo egoera politikoa dela eta, nola ikusten duzu Korsikako preso politikoen etorkizuna?**

Nahiko zaila, eratu den gobernu ikusita eta Frantziako agintari politiko gorenak egindako adierazpenei fidatuz gero. Haatik, azken egunotan, Matignongo prozesuaren aurrerakuntzaz hitz egiten da Korsikan. Izan ere, Parisko Legebiltzarreko hauteskundeetan lehiatzen diren uharteko hautagaiek, baita eskuinekoek ere, prozesuaren aurrera eraman beharraz hitz egiten dute. Zaila da geroa asmatzea, baina uste dut datozen hauteskundeetan emaitzak erabakigarriak izango direla.